



berria

Larunbata
2008ko maiatzaren 24aIRUNE LASA
Donostia

Antiguatarra da Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren (Donostia, 1929). Antiguako *señoritoa*. Horregatik bota zioten harria: «Hementxe, hemen daukat marka oraindik, buruan». 1938. edo 1939. urtea izango zen eta Gutenfelder etxeko semea bizikletan zebilen, lagunekin paseatzen, harria bota ziotenean; «*gu señoritoak* ginen», eta Ondarretako kartzelaren inguruetan langile jendea zen nagusi; gerra garaia, Franco, gizartearen zatiketa erabatekoa zen, Antiguaren ere.

Gaur egungo Zumalakarregi hiribidean, «orduan Amilibia», 579 zenbakian jaio zen, lehen aipatutako Gutenfelder etxean. «Aitak fabrika txiki bat zuen, litografiak egiteko eta jatorriz burgesak ginen bai». Hondartza ia bertan zuten.

«Horregatik, niri *Ondarreta* toponimoa tokatzen zitzaidan izengoitirako; baina Ondarretak ez dauka batere graziarik, ez du nerbiorik ezta musikarik ere. Eta Txillardegik, berriz, bai». Jaiotetxearen aldameneko etxea zen Txillardegik, sona handikoa Antiguaren. «Badakit hango Iturria nire aitoren etsaia zela...».

Donostiako Alde Zaharrean bizi da orain, eta hurbilago duenez gehienetan Urgull mendira jotzen du pasieran ibiltzeko. «Baina Antiguara ere etortzen naiz, aizu». Baserri, jauregi, lantegi, XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran bakoitza non zen, eta auzoa nolako zehatz-mehatz daki. Ez da gutxiagorako *Antigua 1900* liburu ikusgarria argitaratu baitzuen 1992an. Garai hartan auzoan elkar ukitzen ez ziren hiru mundu zudelada dio: Maria Cristina Espainiako Erreginaren inguruko Gorteko eta haien inguruko jauntxoena zen munduetako bat. Lantegi jabeena zen bestea, burgesena. Eta hirugarrena baserritarrena.

80 urteak gero eta hurbilago, eguneko agenda bete du Txillardegik. Ondarretako tartea uste baino motzagoa izango da, mahai-



Ondarretako hondartzatik metro gutxira zegoen Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegiren jaiotetxea. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Bazterretik > Txillardegik Ondarretako hondartza (Donostia)

«Kartzela dinamitarekin nola eraisten zuten ikustera etortzen ginen lagunak»

inguru batera joan aurretik etxean egon behar baitu, kartzelan dagoen semea telefonoz deitzekoa delako.

Txillardegik bera pasa da kartzelatik. «20 urterekin lehendabizi, 1950ean eta bi aldiz 1960an». Beste behin Langraizen egon zen, «bai-

na egun batzuk bakarrik ziren, horrek ez du kontaktzen».

Kartzelaz, Ondarretako kartzelaz ere ondo gogoratzen da Txillardegik. «Dinamitarekin nola eraisten zuten ikustera etortzen ginen lagunak». 18 urte izango zituen garai hartan. «Fama txarreko

kartzela zen. 1947ra arte jendea fusilatu omen zuten hor barruan». Jose Aristimuño Aitzol bera, Hernanin fusilatu aurretik, Ondarretako kartzelan torturatu zuten. «Impresioa egiten zuen. Hurbiltzen bazinen, 'Centinela! Alerta!' hasten ziren oihuka». Igeldoko tranbia ba-

liatuz, senideen bisitan etortzen ziren emakumeak ere gogoan ditu. «Egunero-egunero etortzen ziren, janari, jantzi eta poltsekin».

Ondarretaz, haiek baino oroitzen zuten gozoagoak ere baditu: «Hemendixetik aurrera, hondartzaren alde horri *cuero diplomático* deitzen zioten. Badakizu, horrek esan nahi zuen halako irizpide zabaltasuna bazeukatela. Garai hartan bi piezako bainujantzitan ikusten ziren emakumeak! Jakina, hemen ibiltzen ginen ikusmiran!».

Gustuko du auzoa eta Antiguaren bizitza ere gustatuko litzaioke Txillardegiri. Baina barrurago, «Matia kalean edo», ez hondartza ondoan. «Villa horiekin...—irribarre maltzurra— *señorito* gehiegi bizi da orain».